

MONITORE- BEGIRALEEN EBALUAKETA FITXA

Ebalua ezazu ikastetxearen zurekiko jarrera:

1.- Hizkuntza arduradunarekin koordinazioa:

Koordinazio ezin hobea izan dugu. Eskolan nire bigarren urtea izateak asko lagundu du eta zuzendaritza taldea berria izan arren, koordinazioa oso ona izan da. Beti ni laguntzeko prest egon dira.

2.- Zuzendaritzako harremana eta jarrera:

Egia esan, zuzendaritza, hizkuntza arduraduna eta idazkaritzako langileekin izan dut harremana eta berehala laguntzeko prest egon dira beti. Iada ezagunak gara eta horrek gauzak asko errazten ditu.

3.- Beste irakasleekikoa:

Aurten ere, orokorrean interes handia erakutsi dutela esango nuke. Gehiengoak jolasak aurretik azaldu ditu eta haurrei saioak noiz ziren jakin arazi diete. Noizbait zalantzarik izan badut, edota ikasleren baten portaeraren aurrean kezkarik izan badut, haiekin hitz egiteko aukera izan dut beti eta gomendioak eman dizkirate, egia esan, askok lana erraztu didate komunikazioa erraztu didate eta.

4.- Ikasleekikoa mailaz maila:

HAUR HEZKUNTZA:

1.maila:

Maila honekin martxoan hasi nintzen, ihaz bezala. Eta bi taldeek harrera oso ona izan dute saioen aurrean.

Batzuei hasieran jolasen arauak eta txandak jarraitzea asko kostatu zaie, baina urtea aurrera joan ahala hobekuntza nabarmena ikusi dut.

Hasieran jolas ezagunak prestatu nituen haiekin, nola moldatzen ginen ikusteko eta ikasturtea aurrera joan den heinean, ezagutzen ez zituzten jokuak prestatu ditut eta primeran moldatu gara.

Bestalde, haien arteko harreman ona ere nabaritu dut eta horrek giro ezin hobea sortu du.

Adina dela eta, gaztelera erabiltzeko oitura dutela uste dut. Baina ikasturtea aurrera joan ahala, euskararen erabilpen handiagoa nabaritu dut haien artean.

2.maila:

Ikasturte hasieratik interesa eta jarrera aparta erakutsi dute jolas saioen aurrean. Joku berriak ikasteko gogotsu etorri dira eta jarrera oso aktiboa erakutsi dute.

Batzuetan jolasen txandak errespetatzea pixka bat kostatu zaien arren, haien harteko erlazio onak, saioetako giroan asko lagundu du.

Orokorrean euskararen erabilpena oso barneratua dutela iruditu zait.

3.maila:

Ihaz bezala, gela bakoitza bi taldeetan banatzea erabaki nuen irakasleekin batera. Froga egin ondoren, gela osoko arreta eta jolasen erritmoa mantentzea asko kostatzen zitzaidala ikusita, irakasleekin hitz egin nuen eta gelak bi taldetan banatzea ideia ona zela iruditu zitzaigun.

Hasieran gelan banatzea pena ematen zidan, baina egia esan saioetarako oso lagungarria izan da. Umeek jolasetan parte hartzeko aukera handiagoa izan dute eta jolas gehiago egin ahal izan ditugu.

Gainera, gure arteko erlazioa estuagoa izateko aukera izan dugu eta horrek gauzak asko erraztu dizkigu. Jolasten primeran ibili gara.

Orokorrean euskararen erabilera narneratua dutela esango nuke, nirekin gaztelera gutxitan erabili dute.

LEHEN HEZKUNTZA:

1. maila:

2 taldeak gogotsu etorri dira jolas tailerretara. Baina egia esan, denek gustoko dituzten jolasekin asmatzea nahiko kostatu zait. Halere malgua izaten saiatu naiz eta haiek proposatutako jolasak egin izan ditugu.

Hasieran haien arreta mantentzeko larri ibili naiz eta horregatik jolasteko denbora gutxirekin geratu gara batzuetan.

Baina orokorrean oso gustora ibili gara.

Euskeraren erabilerari dagokionez, orokorrean euskeraz aritu dira beti. Gehiengoak euskera ederra du, baina batzuetan, gaztelera erabili izan dute haien arteko liskarren batean edota niri txantxa egin nahian.

2. maila:

Aurten ere oso gustora ibili gara jolasentan. Gogotsu etorri dira eta oso partaidetza aktiboa erakutsi dute. Askotan haiek niri proposatutako jolas berriak egin ditugu eta haiengandik gauza berri asko ikasi ditut. Gainera jolasak noiz izango zituzten galdezka ibili dira eta hori seinale oso ona dela uste dut.

Orokorrean euskaraz aritu dira eta haien hartean somatzen den giro onak gauzak asko erraztu ditu.

3.maila:

Oso talde partaidetsuak izan dira, beti interesa erakutsi dute jolas tailerren aurrean. Gure arteko erlazioa bikaina izan da eta horrek saioen giroan asko lagundu du. Denetariko jolasetan ibili gara eta jolas berrien aurrean jarrera oso ona izan dute. Euskaraz aritu dira gehiengoetan eta ez dut gaztelera pasatzeko joera handirik nabaritu. Primeran ibili gara.

4.maila:

3 taldeekin primeran moldatu naizela esango nuke. Egia da ere, taldeen artean desberdintasunak daudela. Hasiera batean partaide guztiek ez dituzte jolasen tailerrak gogo berdinekin hartu, baina behin jolasean hasi denak oso gustora ibili direla esango nuke.

Gehienetan lehia duten jolasak gustoko izan dituzte, baina horrek haien artean gatazkak sortu izan ditu batzuetan, eta beste jolas motekin frogatu dut. Horren aurrean jarrera baikorra izan dute eta urtea pasa ahala, haien arteko gatazkak errazago konpontzen ikasi dutela esango nuke.

Orokorrean euskaraz hitz egin dute. Baina nire ustez, gaztelera automatikoki egiten duten ikasleen salbuespen gehiago daude.

5.maila:

Bi taldeekin primeran egon naiz. Haien artean erlazio ona nabaritu dut eta horrek saioetan asko lagundu gaitu. Jolasetara gogoz etorri dira eta jolasen bat gogoko ez bazuten, haien proposamenak kontuan izan ditut. Horrek gure arteko erlazioa hobetu duelarik.

Nirekin orokorrean euskaraz hitz egin dute, baina noizbait gatazkarik izan badute gaztelerara pasa dira automatikoki. Nabari da ere, batzuk euskera beste batzuk baino barneratuagoa dutela, baina orokorrean esfortzua eta interesa erakutsi dute jolas saioetan eta euskararen erabilpenaren aurrean.

6.maila:

Orokorrean 3 taldeekin gustara egon naiz. Egia da ere, talde batekin jolasetan asmatzea gehiago kostatu zaidala. Haien jarrera ez da oso aktiboa izan eta horrek pena pixka bat eman dit. Talde honetan hain zuzen ere, euskararen erabilpen gutxiago ikusi dut eta saioetara nahiko kexati etorri dira orokorrean.

Beste bi taldeekin primeran egon naiz. Oso gogotsu etorri dira jolasetara, interesa erakutsi dute eta gure arteko erlazioa ere hobea izan dela esango nuke. Euskaraz hitz egin dute gehienetan (adin honetan gaztelerara pasatzeko joera handiagoa dagoela kontuan hartuz).

Ebalua itzazu zure lan baldintzak ikastetxean:

1.Espazio fisikoa:

Ihaz bezala, alde hontatik ezin dut inongo kexarik azaldu.

Soinketa gela eta psikogela izan ditut saioak bertan egiteko. Noizbait irakasleek hoietako aretoren bat behar bazuten, nirekin hitz egiteko eta ordutegi batzuk finkatzeko prest egon dira eta hori oso lagungarria izan da.

Eskertzekoa da eskolak espazio aldetik nirekin izan duen jarrera eta malgutasuna.

2.Baliabideak:

Hontan ere ezin naiz kexatu. Denetariko materiala izan dut eskura, baloiak, soka, musika entzuteko tresna,...

Eskolak nigan konfidantza azaldu du, beti ere gauzak erabiltzeko askatasuna eman didate eta.

4. Antolaketa orokorra:

Antolaketa oso ona izan dela uste dut. Eskolako arduraduna nahiz irakasleekin hitz egiteko aukerak asko lagundu nau.

Eskolako baldintzak:

Eskolako baldintzak ezin hobeak direla uste dut.

Formakuntza:

Beti bezala Sortzenen izandako bilerak oso erabilgarriak direla esango nuke, batez ere jolasak monitoreen artean azaltzen ditugunean, zuretzako ezezaguna den zerbait ikasten duzulako.

Koordinazioa:

Koordinazioa oso ona izan dela uste dut. Ez dut arazo larririk izan eta hortan eskolako langileek asko lagundu didate.